



## 24. BULETINA

### Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana

Alarma egoerako 24. eguna. 2020ko apirilaren 8a, asteazkena

### Hilaren 7ko, astearteko, Kudeaketa / Jarduerak

#### BALIABIDE INSTITUZIONALAK

Eneko Goiak *“Donostian konfinamendu osteko egoerari aurre egiteko lan talde bat martxa jarri dela”* esan berri du. Talde hau, gainera, *“2020ko aurrekontua eguneratze- lanetan”* hasia omen da, eta *“gizarte eta ekonomia-agenteeekin harremanetan jarri da beraien beharrak ezagutzeko eta erantzun aproposak eskaintzeko”*. Berri onak diruditen arren, ez litzateke akatsak eta zalantzak aurkitzen ditugun lehenengo titularra.

Batetik, gure hirian kale egoeran dauden 300 pertsonak, gutxi gorabehera, ba al dute erantzun aproposen zain egoteko aukerarik? Gizarte eta ekonomia-agenteen taldean sartzen al dira pertsona hauek? Eta sartzen ez badira, zer itxaron dezakete beste herritar guztiek? Non daude babes gutxien jasotzen duten sektoreak? Goiak argi esan duenez, *“egoerak ondorio gogorrek eta larriak izango ditu”*, eta **sektore ahulenak izango dira post-konfinamendu egoeraren larritasuna gehien jasango dutenak**. Sektore hauentzako beste erantzunik itxaron genezake?

**Oinarritzko galdera** hauek etorriko den egoeraren hausnarketan egotea guztiz beharrezkoa iruditzen zaigu. Gainera, azken asteetan errepikatu dugun bezala, gizarte zerbitzuak beraien eskura duten aurrekontuaren arabera mugatuta daude, eta badirudi Goiak gure Buletina irakurri duela hurrengo adierazteko: *“aurrekontua eguneratzea egoerari aurre egiteko tresna apropos bat izan dadin”*.

Bestetik, oraingo honetan, **lan-taldeak erraztasun ugari ditu asetu behar dituen pertsonen beharrak ezagutzeko**, kale egoeran bizi diren pertsona asko antolaturiko baliabideetan baitaude (udala, forua edota beste elkarte batzuekin adostutako espazioak izanik). Covid19-k ekarritako egoeraren aurretik, gizarte elkarteek aipatzen genituen zenbatekoa zalantzan jar zezaketen, edota beste alde batera begiratu, baina oraingoan zenbakiak argi eta garbi mahai gainean jar ditzakete. Oraingoan premiazko informazioa dugu; badakigu zenbatekoa den, zeintzuk diren, zein perfil dituzten... eta asko behin-betiko erantzunak izan daitezkeen baliabideetan daude (*Atano* pilotalekuan izan ezik). Eta aukera hau aurrera eramateko, baliabide ekonomiko eta profesional nahikoak izango lirateke beharrezkoak. Horrela al da egoera? Aukera hau mahai gainean al dago? Edota guztiz kontrakoa?

**KOMUNIKAZIOA.** 23. Buletina zabaldu da sareetan eta komunikabideei helarazi zaie.

#### BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

**Eskorga bat** (karretila) **eta pala batzuk** behar ditugu gazte batzuk bizi diren fabrika hutsa garbitzeko. Laguntza handia izango litzateke norbaitek eraikuntza enpresaren batekin harremana izango balu eta material hau lortzeko aukera izango balu.

**Ekarpen ekonomikoari** dagokionez, **145 pertsonak** egindako diru-sarrerek **9.458€**ko kopurura iristeko aukera eman digute.

Elikagai ekarpenetan, **Gandarias** eta **Pandora** tabernek eguneroko ekarpena egiten jarraitzen dute.



## 24. BULETINA

### Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana

**Biharamunerako Pilulak.** Ba al dakigu nortzuk diren etxerik ez duten pertsona horiek? Zein behar dituzten? Zein eskubide? Zer ilusio? Zer trebetasun? Zer laguntza eman diezaiekegun? Galdera horiei zuzenduko dizkiegu **Biharamuneko Pilulak**.

### 13. PILULA

#### **Gazte iristen bazara eta familiarik gabe, oztopo-lasterketa bat duzu aurretik.**

Gure kaleetatik noraezean ikusten ditugunean, gauza asko datorzkigu burura, eta gehienak txarrak. Beraien egoera hobeto ezagutuko bagenu, agian, ideiez aldatuko genuke; adin-nagusikoak diren gazte migratzaileetatik ari gara, beste probintzia edo erkidego batean tutoretzapetuak egon direnak eta gurera iritsi direnak.

**SMUS, lehenengo atea** (Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua, GLUZ). Errolda eskatzeko **hiru hilabete** pasa behar dira zain SMUS-era joanez. Eta **dokumentaziorik ez baldin baduzu**, epeak are gehiago luzatzen dira (zatozen herrialdetik pasaportearen kudeatu behar duzu, gehienetan garestia eta zaila izaten den tramiteen bidez).

**Badaukat errolda, orain zer?** Beste **6 hilabete gehiago** itxaron behar dira, SMUS-eko hitzorduetara zoazela. Gero, BARE eskatu behar duzu (*gizarte-baztertze balorazioa*) eta beste **6 hilabete gehiago** itxaron elkarrizketatzeko unea iritsi arte. **Hilabete bat beranduago**, balorazioa esango dizute. "Gizarte-baztertze egoeran" baldin bazaude, Diputazioak bizitzeko baliabide bat emango dizu. Ordurako, **18 hilabete pasa behar izan dira** ahal-den moduan bizi zarelarik. Elkarrizketa ostean, aldiz, "gizarte-baztertze egoeran egoteko arriskuan" zaudela esaten badizute, Udaletxearen esku gelditzen da zure egoera. Azken honek, Udaletxeak, bizitzeko baliabide oso gutxi dituenek, **kalean jarraitu** beharko duzu, SMUS-eko atera jotzen hasieran bezala.

**Eta RGI?** 23 izan arte ezin duzu laguntza hau eskatu, eta gutxienez 3 urteko errolda behar duzu.

**Bizileku-baimen batekin nator beste Erkidego batetik, tutoretzapeko adin-txikikoa nintzelako.** Egoera ez da askoz hobe, baimenaren **eguneratze baldintzak okertu berri baitira**. Baliabide propioak izatea eskatuko dizute (537,84€); beraz, aurrezkiak behar dituzu edota urtebeteko lan-kontratu bat aurkeztu (gutxiengoko soldata 950€koa duelarik). Eta bizileku-baimenaren bigarren eguneratzea baldin bada, zure aurrezkiak 2.151,36€koak izan beharko dira. Zaila, ezta?

Hala eta guztiz ere, egoera honetan formakuntza, **ikastaroetara eta praktiketara** joaten diren gazte asko daude, beraien nahia lanean hastea baita.

Zailtasunez jositako ibilbide hau ezagutu ostean, gure iritzia berdina al da? Ez al dute **izugarritzko meritua aurrera ateratzen** diren gazte hauek? Eta ez al dugu, **bidean geratzen direnekin, inongo erantzukizunik?**

#### **Donostiako Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia**

**Kontaktua:** [redacogidaciudadana@gmail.com](mailto:redacogidaciudadana@gmail.com)

675 71 53 15

**Facebook:** @HiritarronHarreraSarea

**Instagram:** @harrerasarea

**Dohaintzak:** CC ES44 2095 5013 70 9119577666

**ZABALDU, bidali zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.**